Hemi Aldizkaria

# Otsoa

2003ko otsaila 84. alea

Egunkaria aurrera!




# Gorka eta Nekane: saririk gabeko txapeldunak

IRITZIZ-IRITZI: ANTXIÑE MENDIZABAL

ELKARRIZKETA: IÑIGO LETURIA, URRETXUAR BAT PARISEN

ERREPORTAIA: HEMEN DA PALOMITA BLANCA!

# Pagoeta Haur Eskola














**Haur Hezkuntzaren lehen zikloa (0-3 urte) eskaintzeko baimendua**

**Matrikula epea: martxoaren 3tik 14ra**

**Informazio gehiago nahi izanez gero, 605 72 85 76 telefonora deitu**

# ARGAZKI ZAHARRA



**Hona hemen Urolaren 1974ko jubenil taldea.**
**Zutik: Juantxo Aranburu, Txomin Moreno, Julio Gonzalez de Galdeano, Ramon Martin, Jose Angel Biain, Jesus Mari Aranburu, Alberto Cerezo eta Mikel Asurmendi.**
**Makurtuta: Rafa Zarco, Madina, Sebas Iturrioz, Tito Arribas eta Jesus Mari Alkorta.**

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73
**Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202
**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*Mutua General de Seguros*

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599




## Pagotxeta plataformaren aurkezpena

Otsailaren 8an Zumarragako hainbat ezkertiar eta abertzalek osatu duten "Pagotxeta" plataforma aurkeztu zuten Legazpi Dorretxean. Bertan, Pedro Iturbek, guztien izenean, "Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera" salatu zuen eta plataforma osatzen duten kideek egoerari aurre egiteko eta herri gisara antolatzeko prest daudela azaldu zuen. "Euskal Herriko zirrikitu guztietatik askatasun oihua zabaltzen ari da. Hemen gauden zumarragatarrok, dei hori gureganatu eta autodeterminazioaren aldeko, justiziaren aldeko, bakearen aldeko irrintzi bilakatu nahi dugu".

Pagotxeta plataformaren aldarrikapen nagusia autodeterminazio eskubidea da. "Euskal Herriak dauka hitza eta erabakia, euskal herritarrok erabakitzeko eskubidea behar dugu".

Autodeterminazio, justizia eta bake aldarrikapena lau haizetara zabaltzeko, "Pagotxeta-Herribide Eguna" antolatu zuten otsailaren 22rako. Egun horretan, goizeko 11etatik arratsaldeko 2etara hainbat ekitaldi izan ziren Areizaga-Kalebarren plazan.

Egun berean, Urretxuko ezkertiar eta abertzaleek osatu duten "Herribide" ekimena aurkeztu zuten.



## Elkartasunaren fruituak

Zumarragako parrokiako aisialdi taldeak, "Kilimatraka"-k, urtero elkartasuna lantzeko egitasmoa lantzen du. Iaz, Juan Carlos Diez misiolari zumarratarrak Kamerungo Douala hiriko elbarrituekin batera ireki nahi zuen zapata-konponketa tailerrari lagundu zioten. Horretarako elkartasun denda ireki zuten, besteak beste. Urretxuar eta zumarratarrek eskainitako dirulaguntzari esker, argazkian ikus ditzakezuen kamerundarrek zapata konponketa tailerra irekitzea lortu dute eta lanean ari dira jada. Zorte ona opa diegu!

Ferretería BRAVO, S.L.

-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIAK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31
ZUMARRAGA

# Badator Korrika!




Apirilaren 4an Korrika 13 abiatuko da Mauletik eta, Euskal Herria osoa zeharkatu ondoren, apirilaren 13an Iruñara helduko da. Aurtengo Korrikak 60 eta 70 hamarkadetako kultur mugimendua omenduko du eta Euskal Herriak haren moduko loraldi kultural baten beharra duela aldarrikatu nahi du, "AEKrekin herri bat geroa lantzen" lemapean.

Korrika apirilaren 6an, arratsaldeko zortziak baino lehenxeago, Legazpira helduko da eta handik Urretxu-Zumarragara etorriko da. Hemendik pasa ondoren, Ormaiztegi aldera joko du. Lehenxeago, Korrikari ongietorria egiteko, festa txiki bat egingo da trikitilari eta bertsolariekin.

Martxoan zehar, berriz, Korrika kulturala izango da. Asteko, martxoko hainbat ostegunetan, ButaK 21 zineklubak euskarazko laburmetraiak eta filmeak eskainiko ditu. Martxoaren 22an Korrikaren aldeko dirubilketa eta 60-70 hamarkadetako kultur mugimenduaren inguruko erakusketa egingo dira: garai hartako musika jarriko da, ateratako diskoen eta antolatutako kultur ekitaldien berri emango da eta argazkiak ikusgai jarriko dira. Egun pare bat lehenago, apirilaren 4an, haurrek Korrika txikian parte hartuko dute eta, ondoren, dantzaldia eta antzerki saioa izango dituzte. Biharamunean, bukatzeko, haurrentzako jolasak izango dira.

Badira jada aste batzuk gure herriotan apirilaren 6rako prestatzen eta Korrika kulturala antolatzen hasi direla. Aurten Gorka Ojanguren bertsolariak hartu du Ezkio-Itsason, Legazpin, Urretxun eta Zumarragan Korrika antolatzearen ardura. Bera eta beste hainbat herritar astero biltzen dira Bisasti AEK euskaltegian. Korrika batzordean parte hartu nahi baduzue, ongietorriak izango zarete. Izan ere, guztion laguntza beharko da Korrika kulturaleko ekitaldiak antolatzeko, kilometroak saltzeko...

Aurten kilometroa 300 eurotan salduko da (gogoratu zenbait lagunen edo elkarteen artean ere eros daitekeela). Bestalde, Bisasti AEK euskaltegiak Korrika laguntzaile txartelak ere salgai jarri ditu herriko tabernetan. Hamar euroren truke, metro sinbolikoa erosi eta Korrika 13ko pina eta denda batzuetan merkeago erosteko aukera eskaintzen duen Korrika laguntzaile txartela eskura ditzakezue. Korrika batzordean parte hartu nahi baduzue, kilometroren bat erosi nahi baduzue... Bisasti euskaltegira jo edo bertako 943 72 04 58 telefonoroa deitu behar duzue.

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
**Merkea eta ona!**

Yarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

**Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona**
ARTURO
Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU
OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA
S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
**ZUMARRAGA**

**GUREA**
Iturgintza
**Bainurako altzariak**
**Gas instalazioak**
**Berogailuak**
**Bainuak...**
**Barrenkale 17- ☎ 72 12 67**
**20700 URRETXU**

# Uriarte gotzaina gure artean da

Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzaina gurekin dugu egunotan, Zumarragako Artziprestaldeari (Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga) Ikustaldi Pastorala egiten. Joan zen igandean eman zitzaion hasiera ofiziala ikustaldiari, Legazpiko parrokian ospatu zen mezan. Hurrengo zazpi asteburuetan ere Juan Maria Uriarte gure artean izango dugu.

Gotzainaren bisitaldiaren helburu nagusia gure herriak, bertako kristau taldeak eta parrokiak ezagutzea da. Era berean, inguruotako kristau taldeek eta elkarte ezberdinetako ordezkariek Juan Maria Uriarte ezagutzeko aukera izango dute.



Horretaz gain, gotzainak Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako parrokia eta auzoetan meza emango du: martxoaren 8an arratsaldeko 7:30etan Lourdesko Amaren parrokian, martxoaren 9an goizeko 10etan Aztirian, martxoaren 16an goizeko 10etan Aizpurutxon eta eguerdiko 12etan Urretxuko San Martin de Tours parrokian, martxoaren 23an goizeko 10etan Ezkion eta 12etan Zumarragako El Salvador parrokian, martxoaren 30ean eguerdiko 12etan Zumarragako Andra Mari Jasokundearen parrokian eta apirilaren 6an goizeko 10etan Agiñan eta eguerdiko 12etan Gabirian. Ikustaldiari amaiera emango dion meza apirilaren 11n izango da, arratsaldeko 7etan, Zumarragako Andra Mari Jasokundearen parrokian.

# Martxoa, bertso giroa

Urretxu-Zumarragako Bertso Eskolak "Martxoan, bertsoa!" izeneko ekitaldi sorta antolatu du martxorako. Bertsolaritzaren inguruko ekitaldi hauen helburuak Urretxu-Zumarragako Bertso Eskola herrian zein Gipuzkoa mailan ezagutzera ematea eta herrian bertsozaletasuna suspertzea dira.

Lehen ekitaldia herriko bertsolari amateurren (bertsozaleen) arteko txapelketa izango da. Bertsolariek hiru laguneko taldetan parte hartuko dute eta lan errazak eta motzak bete beharko dituzte. Lehen kanporaketa Motz tabernan izango da martxoaren 7an, bigarrena Fox tabernan 14an eta hirugarrena Aldiri tabernan 15ean (guztiak gaueko 11etan). Finala Gaztelekun izango da, 28ko gauerdian.

Gainontzeko ekitaldiak, berriz, honakoak izango dira: martxoaren 21ean bertso musikatuen ikuskizuna Zelai Ariztin gaueko 10etan, 22an bertso eskolako klase irekia goizeko 11etan Kultur Etxean eta 27an Jon Maia eta Xabier Amurizaren hitzaldia 7:30etan Kultur Etxean. Maiak eta Amurizak "Mende baten aldarriak bertsotan jarriak" bertsohitzaldian XX. mendearen errepasua egingo dute. Bukatzeko, martxoaren 29an gaueko 10etan Zelai Ariztin, Andoni Egañak, Sebastian Lizasok, Unai Iturriagak, Maialen Lujanbiok, Aitor Mendiluzek eta Nerea Elustondo legazpiarrak punta-puntako bertso saioa eskainiko dute.



# Egunkaria eta euskalgintza AURRERA!!

Aurki hamar urte egingo ditu Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartea legeztatu genuela eta lehen bazkideak datu basean sartzeari ekin geniola. Urte hauetan guztietan, makina bat gertakizun bizi izan ditugu elkarrekin, isilean. Ez genuen hitz bat bestea baino ozenago esan orain urte batzuk ordenagailuak eta materiala lapurtu eta ia hasieratik bertatik hasi behar izan genuenean, ez eta bazkideak hil zaizkigunean edo bidegabeki atxilotu dizkigutenean. Herri, lurralde nahiz nazio mailan izan ditugun egoera nahasien aurrean ere, gehienetan, ia beti, isil isilik egon gara. Hobeto esanda, isil isilik aritu gara. Isil isilik aritu gara (eta horretan dihardugu) gure bi herriotako gizarte esparru guztietan euskararen erabilera normalizatu nahian.

Baina oraingo honetan, gu bezala euskararen erabilera areagotzeko lanean ari den jendea atxilotu eta euskara hutsean dugun egunkari bakarra itxi digutenean, ezin gara isilik egon, ez. Gu ere egunkaria gara. Guk ere bat egiten baitugu bere helburuarekin, bere nahiarekin. Euskarak ezin ditu horrelako erasoak behin eta berriz jasan, etorkizuna jokoan dago, guztion etorkizuna.

Hala ere, gure garrasia ez da ozena eta tinkoa bakarrik izango, bestelakoa baizik. Gure haserrea lan egitera bideratuko dugu. Euskara hutsezko egunkaria martxan jarri eta iraunaraziko duten harpidetzak lortzeari ekingo diogu. Etorkizuna guztiok eraikitzen ari gara eta guk, partaide bezala, euskararen normalizazioa bultzatu nahi dugu.

**Ez gaituzte isilduko!**







MAPFRE
Aseguru etxea
S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00


PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70




UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU



Antxiñe Mendizabal Aranburu

# Etxekoandre euskaldun baten tribulazioak

Goya Sarien banaketa ikusiz suertatu zait azkenekoz; alegia, telebista ikusten hasi eta nazka-nazka eginda bukatzea. Egokitu naiz pantaila aurrean eta non ikusten dudan saria hartuta, mikrofono aurrean hitza ematen zaien guztiak, Estatu Batuek Iraken kontra iragarri duten gerra inongo erreparorik gabe salatzen; eta hori gutxi ez balitz, baten batzuek Aznarren gobernuaren jarrera konplizea seinalatzen.

Txundituta nago. Hain txundituta, ezen saioa bukaeraraino ikustea erabaki dudan, halako batean Moncloatik emandako agindu baten ondorioz, transmisioa etengo dutela, kasik, sinetsita. Izan ere, ez pentsa salatzaileek hitz epelak erabili dituztenik; tartean, Bardem bezalako *hispanis lover*-ek gobernuari hortzak erakutsi dizkiote. Beste batzuek, hippyen garaiko mezuak birgogoratuz, eskua altxatuz: *"No a la guerra, por favor"* esaten dute ahots melosoa jarriz. Eta askok, Penelope Cruz txolina adibide, titi artean *"no a la guerra"* dioen txarteltxoa jarrita agertu dira.

Esaten ari nintzen bezala, Madrildik bertatik gobernuari ematen ari ziren astinaldiaren morboagatik gelditu nintzen telebistari pega-pega eginda. Sentsibilitate berriren bat ernaltzen ari ote zen esperantza ere piztu zitzaidan une batean. Errealitatera agudo itzuli nintzen, ordea, "Leitzako morroskoa" poesia errezitatzen ikusi nuenean; euskaraz, gainera. Sinesteko ere! Ez naiz ni, baina, Iñaki Perurenari deitura hori jarri diona; alabaina, esango didazue bestela zer ondoriozta daitekeen harrijasotzaileak *partenair*-tzat zuen Alaskaren hitzak entzun eta gero: *"No piensen ustedes que detrás de este cuerpo se esconde tan sólo fuerza bruta"*, bota zuen lizun-lizun. Eta erremate emateko: *"Detrás de este cuerpo hay mucha sensibilidad"*; alegia, idi pare bati adineko inteligentzia aitortu zion postmoderm-ak Leitzakoari. Kuku otzara halako hori.

Sari Banaketa aurrera joan ahala, ordea, sutan jartzen hasi nintzen. *"No a la guerra"* batek, *"stop a la guerra"* besteak, *"no queremos guerra"* hurrengo batek. Madrildik ehundaka kilometro gutxira ematen ari den gerraren aurka ez al du inork ahotsik altxako? Kokolo talde honetako inork ez al du korajerik izango estatu espainolean gerra bortitza bizitzen ari dela aitortzeko sikiera? Inor ez al da Euskal Herriari begira jarriko?

Espainiako komunikabide guztietan egunero gara portada eta orrialdeak betetzen dituzte Euskal Herriko indarkeriaz hitz egiten. Oraindik ez al dira konturatu hitz horiek guztiak gerrarako kontsignak direla? Ez al dira oriandik jabetu PPri edota PSEri botoa emanez beste gerra baten babesle ere badirela? Beren kartzeletan preso politiko euskaldunak dituztela? Madrilgo Audientzia Nazionala gerra-kontseilu bihurtu dela?

Biktimismo deitu ohi diote nire jarrerari. Azken egunotako gertaerek, ordea, nire ustea indartzen dute: Joseba Garmendia Donostiako fakultatera ekarri zutenean, eszenifikatu zen muntaia poliziala eta mediatikoaren lekukoa izan naiz, hala nola Joseba eta etxekoek Ertzantzaren eskutik jasan behar izan zuten jarrera salagarriarena. Pagotxeta plataforma aurkeztu den egun berean Andoaingo atentatu bidegabearen berri izan dut. Arratsaldean presoen aldeko enkarteladarekin egin dut topo. Eta erosketak egin ohi ditudan supermerkatuan eszena *bukoliko* hau ikustea tokatzen zait askotan: PPko zinegotzi bat bizkarzaina alboan duela, guztiak mesfidantza aurpegiaz begiratzen gaituen ertzaina, eta semea tiroz hil zuten ertzainaren amaren begirada saihestezina.

Eta berriro ere Goya Sariak etorri zaizkit gogora: zein erraza den milaka kilometrotara dagoen gerra baten aurka jende aurrean azaltzea! Zein erraza den Irak-eko herriari elkartasuna adieraztea! Zein erraza den urrutitik ikusten ditugun indarkeriak salatzea!

Nik ere, nire bizilagunen aurrean mikro bat hartzeko aukera izan dut, ez da denbora asko. Baina ixildu egin naiz. Nik ere gerraren aurkako manifestu bat irakurri nahiko nukeen. Baina gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoan ez dira horretarako baldintza egokiak ematen –alderdi politiko guztiak dira, nire ustez, askatasun falta horren erantzule, alderdi politiko gisa jokatzen dutelako eta erasoak handiak direnean kontsignak nagusitzen direlako: baldintza gehiegi, kontrolaezinak diren arrisku faktore gehiegi, gorroto handiegia, tolerantzia gutxiegi, itxikeria handiegia eta faxismoa nonnahi aurrea hartuz.

Eta ni paperak zirriborratuz nire pertsamenduak ordenatzen eta erosketetarako zerrendak egiten bizi naizen etxekoandre langile bat besterik ez naiz. Aitor dezadan mikroa eskaini didatenean, barrenetik ia eutsi ezinda, irten eta mihi puntan geratu zaizkidan hitzak esateko gogoz nagoela oraindik: gerrarik ez Euskal Herrian.

# Orain Egunkaria itxi dute, zer egin behar dugu?



## Gotzon Aranburu

Eraso faxista ba da. Herrietako agente politiko eta kultural guztiak zerbait egitera, ez esatera, behartzen dituena. Aitzakien garaia bukatu da eta gure burua abertzale edo euskalduntzat daukagun guztiok honen gainetik pasatu beharra daukagu.



## Asier Treku

Harrituta nago. Espero ez nituen gauzak gertatzen ari dira. Piskanaka terrenoa jaten ari dira eta ezin dugu pentsatu hurrengoa zein izan daitekeen, ez dirudi hau bukatuko denik. Hau salatzeko antolatuko diren mobilizazioetan parte hartu behar dugu.



## Maria Plazaola

Harrigarria da Egunkariaren aurka joatea, baina azken batean estatuaren jokoa da. Ez da bakarrik sektore bati ikutzen diona, euskaltzale guztiok ikutzen gaitu. Euskal egunkari bakarra da eta euskaltzale denok elkartu beharko genuke gertatutakoa salatzeko.



## Mikel Aramendi

Egin denaren aurrean, zaila da herritarren ekimenez gertatutakoa aldatzea. Hala ere, lanean jarraitu beharko da eta indar gehiagorekin ahal bada. Jendea languntzeko gogoarekin dago, baina azpiegitura berria sortzea zaila izango da.



## Andoni Ausin

Gertatutakoaren kontra zerbait egitea oso zaila da. Nahi dutena egiten dute, boterea beraiek baitute. Eginekin, AEKrekin... berdina gertatu zen. Herritarrok ahal dugun guztia egingo dugu hau konpontzeko, baina ez dakit kasu egingo zaigun.



## Anes Urbegain

Astakeria galanta da, baina ez da lehenengoa ere. Denon artean zerbait egin beharko dugu, besterik ez bada kalera irten eta salatu egin beharko dugu.

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Elektrogintzan, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA


belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Labeaga 30 ☎943 72 27 80
URRETXU

PAKO VIERBUCHER
Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala
Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga
Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu

URKI
liburudenda
Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA

# Iñigo Leturia:

## Urretxuar baten gorabeherak Parisen



Abendua aldera Parisko Euskal Etxean euskara ikasten ari direnei buruzko erreportaia eman zuten ETBko albistegietan. Halako batean irakaslea azaldu zen eta... "hori urretxuarra da eta... Aldalur, Artola eta hauen koadrilakoa!". Biharamunean, Iban Aldalurrek misterioa argitu eta Iñigo Leturiaren telefonoa eman zigun. Iñigori deitu eta atsegin osoz erantzun zizkigun bota genizkion galdera guztiak.

**Noiz eta nolatan joan zinen Parisera?**

Gezurra badirudi ere badira hiru urte Parisera etorri nintzela. Ikasketak zirela eta, Arrasaten ingeniaritza teknikoa bukatu eta goi-mailako ingeniaritza atzerrian egiteko erabakia hartu nuen. Horrela, urtebete Bordelen iragan ondoren Pariserantz abiatu nintzen.

**Zein enpresatan eta zertan lan egin duzu?**

Parisen izan dudan abantaila handienetariko bat lan munduan eduki ditudan aukerak izan dira. Lehenengo urtean planeta berriak deskubritzeko aurten bidaliko den satelite batean lanean jardun ondoren, 3. belaunaldiko telefono higikorren garapenean egin nuen lan "ALCATEL" enpresa frantziarrean. Medikuntza arlora egin nuen salto ondoren, "General Electrical Medical Systems" izeneko enpresa amerikarrean X izpidun makina kardiobaskularren garapenean parte hartzeko. Eta gaur egun "WAVECOM" izeneko enpresan nabil lanean, non berriz ere telefono mugikorren mundura itzuli naizen, "ALCATEL"-en eginiko lanari jarraipena emateko asmoz.

**Gogorra egin al zitzaizun bertako bizimodura ohitzea?**

Bada, egia esan ez zen oso erraza izan. Ez dut esan nahi zorterik izan ez dudanik, ez baita hala. Baina dagoen kultura aldaketa ezin daiteke ahaztu, kontuan hartuta batez ere Parisera hurbildu nintzenean ez nuela ezagunik eta guztiz integra-

tu behar izan nintzela frantziar giroan. Baina beno, horrek ere alde positibo ugari ditu eta orain perspektibarekin ikusita, pozten naiz horrela izateaz. Hala ere, ez dut uste frantziar bizimodura guztiz ohitzeko sekula gai izango nintzatekeenik.

**Zerk bultzatu zintuen Euskal Etxera joatea? Nolatan hasi zinen euskara klaseak ematen?**

Ba egia esan kasualitatez izan zela aitortu beharra daukat. Euskal Etxearekin izan nuen lehenengo kontaktua bertan hilabete pasatzeko izan zen, gelak ere proposatzen baititu Pariseratzen diren euskaldunentzat. Baina egia esan ez zegoen mugimendu handiegirik bertan eta euskara klaseak emateko irakasle bila zebiltzala jakin nuen arte ez nintzen berriz ere itzuli; aukera paregabea iruditu zitzaidan, urrun egon arren, euskararen alde zertxobait behintzat egiteko. Eta horrela hasi nintzen pixkanaka Euskal Etxearen bizitzan aktiboki parte hartzen.

"Ez dut uste frantziar bizimodura guztiz ohitzeko sekula gai izango nintzatekeenik"

**Zer moduzko giroa bizi duzue bertan?**

Giroari dagokionez, ba egunetik egunera hobea dela esan beharra dago. Geroz eta gazte gehiago hurbiltzen da eta orain dela urte batzuetatik hona, geroz eta mugimendu gehiago dago bertan. Etapa garrantzitsu batean dago hain zuzen ere momentu honetan Euskal Etxea: egoitzaz aldatzen ari gara, honek inplikatzen dituen aldaketa guztiekin. Eta mundu guztia ari da makina bat esfortzu egiten gauza ahalik eta hoberen atera dadin, Euskal Etxeari aire berri eta freskoa eman nahian.

**Euskaldun asko elkartzen al zarete? Bertan bizi den euskaldun jendea, oporretara doana... frantziarrak ere hurbiltzen al dira?**

Euskal Etxearen inguruan mugitzen garen euskaldunon kopurua finkatzea ez da oso erraza. 400 bat sozio ditu Euskal Etxeak, baina hala ere badakit bertara hurbiltzen diren asko ez direla sozio, beraz, ez da erraza zenbaki bat esatea.... Hori bai, gehienak Euskal Herriarekin loturaren bat dutenak dira, batez ere iparraldetik datozenak. Hala ere, batez ere euskal jaietan, badira makina bat frantziar bertara hurbiltzen direnak; horren froga, azken euskal festan bildu ginen 3.000 pertsonak.

**Zer ekitaldi antolatzen dituzue? Zertan parte hartzen duzu zuk?**

Makina bat dira urtean zehar antolatzen diren ekitaldiak. Kontuan hartu behar da gainera, elkarte ugari daudela bertan: 3 koru, zenbait dantza talde, Paris osoan entzun daitekeen irratia, presoen aldeko elkartea, euskal festak antolatzen dituen beste bat, hilero argitaratzen den aldizkaria eta euskara klaseak emateaz arduratzen den elkartea. Beraz, beti dago kontzertu, bazkari, hitzaldi, festaren... bat antolatuta bertan parte hartu ahal izateko. Niri dagokidanez, batez ere euskara klaseak emateaz arduratzen den elkartean (SUSTRAIAK) eta ELGAR izeneko aldizkarian nabil sartua. Horretaz gain, Euskal Etxe mailan beti dago zerbait antolatu eta egiteko beharra (taberna dela, bazkariren bat dela,....). Hor ibiltzen gara beraz, aurrera eta atzera ahal dena egiten.....

**Gogorra egin al zitzaizun klaseak ematen hastea? Horretarako ikasketak egin al zenituen?**

Ba ez, irakasle gisa aritzeko ikasketarik ez dugu inork egina SUSTRAIAK elkartean. Hala ere AEK eta HABErekin kontaktuak ditugu eta noizean behin etorri izan dira asteburuan Parisera guri didaktika kurtsoak ematera. Eta zailtasunari dagokionez, ba egia esan, ez zitzaidan oso erraza egin klaseak ematen hastea Honezkero martxa hartzen hasia naiz baina, bolondres gisara gabiltzanez irakasle guztiak, askotan ez dugu denbora gehiegi izaten gauzak behar diren bezala prestatzeko. Baina beno, gauzak aurrera nahiko ondo doazela esan behar...

**Zer material erabiltzen duzue? Habe edo AEKrekin harremana izango duzue...**

Irakasle bakoitzak, bere metodologia erabiltzen du. Material faltan behintzat ez gaude, AEK eta HABEk argitaratzen duten material guztia bidaltzen baitigute; bai liburu, aldizkari, bideo... Orain, gainera, HABErekin elkarlanean Internet bidezko kurtso bat prestatzen ari gara. Ikasleek ordenagailuak izango dituzte eskuragarri beraien neurrian aurreratzeko; ikusiko dugu zer nolako harrera duen ikasleen artean....

"Jatorri oso ezberdineko jendea etortzen da Parisko Euskal Etxera euskara ikastera"

**Zer nolako jendea joaten da klaseetara? Nongoa? Zer dela eta ikasi nahi dute euskara Parisen?**


Klaseetara datorren jendeari buruz jatorri ugaritakoak ditugula esan behar. Japoniar batzuk adibidez badira maila desberdinetan banaturik, ingeles bat ere badugu ikasle eta antilar beste bat ere hasi da aurten euskara ikasten. Baina, adierazgarrienetariko bat Sam izeneko Egipziarra dugu. Euskal Herriarekiko bere inplikazioa sinesteko ere ez da erraza: behin Euskal Herrira bidai bat egin behar izan zuen eta bertan maitemindua gelditu zitzaigun. Harrezkero, ahal duenean barnetegietara joaten da Euskal Herrira eta Euskal Etxean ikasle motibatuenetarikoa dugu. Bestela, batez ere Iparraldearekin erlazio zuzena duten ikasleak ditugu. Hala ere, badira beste hainbat frantziar Euskal Herriarekin zerikusirik ez dutenak: bai hizkuntzak maite dituztelako, bai Euskararen misterioa ulertu nahi dutelako, bai hain kultura berezia gertuagotik bizi nahi dutelako... Hauetariko bat ere irakasle gisa dabilkigu eta EGAko frogak prestatzen ari da egun. Bakoitzak motibazio ezberdinak izan arren, hala ere, guztiak egundoko ilusioz etortzen zaizkigu klaseetara. Eta horrek, irakasleon lana biziki errazten du.

**Zer diote ikasleek gure hizkuntzaz eta gure bizimoduaz?**

Bat datoz guztiak: oso hizkuntza berezi eta ederra dela eta ez dutela ulertzen Euskal Herrian berau ikasteko eta praktikan jartzeko ditugun aukerekin, nola jendeak ez duen ikasteko esfortzurik ere egiten. Zaila egiten zaie hainbat eta hainbat urteren buruan jendea lau hitz jarraian esateko gai nola ez diren ulertzea.

**Gustura al zaude Parisen? Herrira itzultzeko asmorik ba al duzu?**

Parisen, egia esateko, ez nabil batere gaizki. Horrelako hiri handi batean bizitzeak makina bat gauza egiteko aukera ematen du eta era berean, pertsonalki ere eboluzionatzeko aukera ezin hobea ematen du. Hala ere, argi daukat egunen batean herrira itzuliko naizela: gogorregia da Pariseko bizimodua bertan bizitza osoa egiteko. Ziur lehenago edo beranduago herriratuko naizela.



**Zer da Parisetik gehien atsegin duzuna? Eta gutxien? Deigarriena?**

Bertan aurki genezakeen kultura ezberdintasuna esango nuke egiten zaidala erakargarriena; hiru urteren buruan, makina bat jende ezberdin gurutzatu eta ezagutzeko aukera izan dut eta horrela konturatzen da bat gurekin zerikusi asko ez izan arren, oso jende eta kultura interesgarriak daudela gure inguruan eta gureak bezainbesteko errespetu eta onarpena merezi dutela. Gutxiena, berriz, inongo zalantzarik gabe, horrelako herri handi batek suposatzen duen estresa! Metroa dela, alde batetik bestera korrikan ibili beharra zita batera garaiz iristeko,.... Eta nola ez, jendearen autismoa. Bakoitza bere munduan bizi da eta norbaiti metroan irribarre bat ateratzea mundu honetako lan zailenetariko bat bilakatzen da Parisen.

**Lagunak ere noizean behin bisitan joaten omen dira...**

Ba bai, horretan ere zorte faltarik ez dudala esan behar. Makina bat anekdota badira kontatzeko modukoak gainera. Koadrilan dugun bakoitzarekin Parisen gerta ezin daitekeena...; barreak behintzat ez dira falta izan gerturatu diren bakoitzean. Hamar bat Urretxuar petopeto batera etortzen direnean, egia esan, gauza onik ezin gerta. Hori bai, bisitek egiten duten ilusioa ez da txikia izaten...

**Herriko jende gehiago bizi al da bertan?**

Ez dut nik hemen bizi den herriko jenderik zuzenean ezagutzen. Hala ere badakit Urretxuarren bat hemen ezkonduta dagoela, beraz, norbait bada nitaz gain Parisen bizitzen. Jakina da euskaldunak bazter guztietara iristen garela...

FAMILIA BABES ASEGURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.
-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEGURUA.
-ISTRIPU ASEGURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina
20600 EIBAR
☎ 943 20 24 70

*La Previsora Bilbaina, S.A.*
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa

## KAT enterprise presents...

# Palomita Blanca!!



Martxoan Karmakros herriko antzerki taldeak grabatu duen telebista saioaren estreinaldia ikusteko aukera izango dugu Urola Telebistan. Telebista saio hau hainbat sketch-ez eta Palomita Blanca mexikar kutsuko foiletoiaz osatua dago eta ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Karmakrosekoek eta herriko beste hainbat lagunek, 40 pertsona inguruk, bi urte eman dituzte saio hau prestatzen. Karmakrosekoak bigarren saio bat grabatzen ari dira jada eta grabaketa lehenengoa baino arinago joango dela uste dute. Euren asmoak lau saio grabatzea da eta, hauek, tokian tokiko telebisten sarean emititzea dira. Ez dakigu gure herritik kanpo ere ematerik lortuko duten, baina saioak Urretxu-Zumarragan arrakasta itzela izango duela apostu egingo genuke. Izan ere, umorez gainezka datorren saioak herritar ugari antzezten ikusteko aukera eskainiko digu.

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Juanlu Escudero eta Oskar Cadierno izan ziren telebista saioa egitearen ideia izan zutenak. Sketch batzuk egiteko asmoa besterik ez zuten, baina Oskarri foiletoi tankerako sketch luzeago bat ere egitea otu zitzaion. "Hasieran ideia alboratu egin genuen; hura egiteko behar zen jende kopurua zela eta, zorakeria iruditu bazitzaigun. Baina, azkenean, musika zuzenean jotzen duen mariatxi talde bat ere sartu dugu Palomita Blanca foiletoian". Azken emaitza bospasei sketch laburrez (gehienak euskaraz) eta sketch nagusia den Palomita Blanca foiletoiaz (erdaraz) osatutako saioa da, Monty Phyton taldeak bere garaian egiten zituenen antzerakoa.

Nolatan urretxuar eta zumarratar batzuk Cantinflasen pare? "Betidanik gustatu izan zaigu mexikar herria eta beraien modura hitz egitea, bertara joatea bakarrik falta zaigu... Istorioak inplikazio handia izatea nahi genuenez, mariatxi talde bat sartzea otu zitzaigun. Horretarako Candyrekin harremanetan jarri ginen eta baietza eman zigunean gainontzeko mariatxiak fitxatu genituen". Juanluren iritziz, mariatxiak pertsonaia bat gehiago dira: "foiletoiaren soinu banda eurek jartzen dute eta benetako mexikar kutsua ematen diote".


Jakinminak jota, Juanlu eta Oskarri istorioaren nondik norakoak azaltzeko eskatu genien, baina ez dute telebistan bota aurretik gehiegi zehaztu nahi. "Ez da foiletoi hegoamerikarren parodia bat, gure gustuen eta izaeraren araberako foiletoia baizik. Western kutsu handia du. Istorioa Encinillas izeneko mexikar herri batean gertatzen da eta, bertan, pistolak, gartzelak, sheriffa, maitasuna, zeloak... tartean daude. Gaiztoak oso gaiztoak dira, txintxoak ez dira diruditen bezain txintxoak... Tonu epikoa eman diogu eta pasioz gainezka dator". Sketch-ak, berriz, eguneroko bizitzari buruzkoak omen dira. "Sketch gehienak oso kostunbristak dira, eguneroko istorioak. Dena den, badago surrealistagoa den bat edo beste ere".

> Herriko 40 lagun inguruk parte hartu dute telebista saio honen ekoizpenean

Telebista saio bat egitea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: aktoreak, soinu teknikaria, dekoratu egileak, gidoilariak... Palomita Blanca eta sketch-ak egiten 40 lagun inguruk parte hartu dute. "Tailerrean 20 lagun inguru gara. Gutaz gain, mariatxiek eta beste hainbat lagunek parte hartu dute. Produkzioaz, baimenak lortzeaz... antzerki tailerrekook arduratu gara. Ekoizpenaz Rosa Garrido eta hiruok arduratu gara. Foiletoiaren zuzendaritzaren ardura Oskarrek hartu du eta ni (Juanlu) sketch-ak zuzentzeaz arduratzen ari naiz. Kamera arduraduna Iñaki Mariñelarena da, montaia UTBn egiten ari gara...".

Juanlu eta Oskar oso gustura daude egindako lanaz eta lanean izandako giroaz. "Gure lan guztietan ahalik eta jende sortzaile gehien parte har dezan saiatzen gara. Honela, istorioa herrikoia izatea eta jendeak ikustea lortzen duzu".

Karmakrosekoek grabatutako telebista saioa martxoan botako dute lehenengoz UTBn, seguraski astearte gauetan.





Lehenago trailer bat botako dute saioa iragartzeko. "Oso garrantzitsua izango da publizitatea ematea. Horretarako, ahalik eta zarata gehien ateratzen saiatuko gara: trailer bat botako dugu, komunikabideetan azaltzen saiatuko gara... UTB ikusi ezin dutenek, orain dute antena jartzeko aukera bikaina: herritarrek egindako saio bat da, dibertigarria... Aktore lagunei telebistarako saio bat egiten ari garela esaten diedanean txundituta gelditzen dira (Juanlu)".

Karmakrosekoek ahalegin handia egingo dute jendeak euren lanaren berri izan dezan. Izan ere, bi urte eman dituzte lan egiten. "Astelehenetan mariatxiek lan egiten dute, asteazkenetan entseiatzen saiatzen gara eta larunbatetan, igandetan, beharrezko baldintza guztiak betetzen diren guztietan... grabatu egiten dugu. Eszena batzuetan jende askok parte hartzen du eta guztiak egun berean biltzea oso zaila da, ez baikara profesionalak. Honek, eta beste gauza batzuek, lana asko atzeratzen dute".

Gainera, eszena batzuk kalean grabatu dituzte. "Pagoeta antzokia telebista estudio bezala erabiltzen ari gara. Bertan eszenografiak montatu eta barrualdeko eszena batzuk grabatu ditugu. Beste batzuk, berriz, Legazpi Dorretxean, Zelai Ariztin, Zumaiako hondartzan, Legazpin... grabatu ditugu. Oraingoz ez dugu kalean istilu handirik sortu, baina gure asmoa geroz eta eszena gehiago kalean grabatzea


## Karmakrosekoen asmoa "Palomita Blanca" foiletoiaren lau atal grabatzea da

da. Ez dugu Estudio 1 zena bezalakoa izatea nahi".

Oraingoz 90 orrialde dituzte idatzita eta hauetatik 40 grabatu dituzte jada. "Lehen saioan 40 orrialde hauek eman dutena botako dugu, ordu eta erdi inguru. Jadanik bigarren saioa grabatzen ari gara eta ahal bezain pronto botako dugu. Antzerkia egitea eta telebistarako lan egitea oso ezberdina da. Idearik ez genuen, baina ausardia handia izan dugu. Hemendik aurrera azkarrago eta hobeto arituko garela uste dugu. Guk ere, Felix Linaresek bezala, jendeari akatsak aurkitzea proposatuko diogu: ea nork aurkitzen dituen akats gehiago. Etsaiarekin ezin baduzu, elkartu zaitez berarekin".

Karmakros antzerki taldeko lagunen asmoa Palomita Blanca ahalik eta gehien luzatzea da: bi urte, hiru... "Gure ustez, lau kapitulu grabatu ditzakegu. Telesaila bukatzen dugunean, gainontzeko herri telebistetan botatzea gustatuko litzaiguke. Bestalde, arrakasta badu eta aurrera egiten badu, herriko eta inguruotako jende ezagunak gonbidatu gisa parte hartzea nahi dugu".

Antzerki taldekoek, telebista saioan lanean burubelarri dabiltzan arren, ez dute taldearen betiko martxa alde batera utzi eta beste asmo batzuk ere badituzte. "Astean behin jende berriari klaseak ematen dizkiogu. Ikasturte bukaeran Zelai Ariztin, Bitarteanen laguntzaz, urtean zehar egindako lana erakutsiko dugu guztiok. Bestalde, web orria prestatzen ari gara Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz".






MASKARADEI BURUZKO HITZALDIA ESKAINI ZIEN GAINZURIKO IKASLEEI

# Kepa Fdez de Larrinoa:
## "Zuberoako Maskaradak bertako nortasun marka dira"

Aste honetan ihauteriak ospatuko ditugu eta gure eskoletako haurrek euren mozorroak prest dituzte jada. Gainzuriko haurrek, esaterako, Zuberoako Maskarada antzeztuko dute. Egingo duten antzezpenaren eta jantziko dituzten mozorroen esanahiaren berri izateko, Gainzuriko haurrek Kepa Fernandez de Larrinoa antropologo bilbotarraren hitzaldia eta diapositiba emanaldia izan zuten otsaila bukaeran Zelai-Arizti ikastetxeko areto nagusian. Ekitaldia hasi aurretik, Fernandez de Larrinoarekin hitz egiten izan ginen Zuberoako Maskaradari buruz.



Kepak Euskal Herriko, Madrileko, Kanadako eta Erresuma Batuko unibertsitate eta eskoletan antropologia ikasketak egin ditu. Hainbat liburu kaleratu ditu, horien artean Zuberoako Maskaradari buruzko hiru. Zuberoako Maskarada Zuberoako ihauterietako ospakizun garrantzitsuena da. "Maskarada herriko gazteek egiten duten jaia da. Aldameneko herriak bisitatzen dituzte eta, hauetan, dantza, kantu eta eszenifikazio batzuk egiten dituzte. Honen truke, bisitaldia jaso duen herriak bazkaria antolatzen du eta guztiek elkarrekin bazkaltzen dute".

Garai batean maskarada gehiago antolatzen omen ziren. "Lehen Mundu Gerran iparraldeko gazte asko hil ziren eta dolua zela eta, ez ziren maskaradak antolatu. Bestalde, industrilizazioa heldu zenean, baserritarrak hirietara joan ziren eta ez zegoen maskaradak ospatzeko jenderik".

Azken 20 urteotan, ordea, maskaraden berpiztea eman da eta herri guztiek antolatu nahi dute maskarada. "Egun, urte bakoitzean herri batek egiten du maskarada. Maskarada antolatu nahi duen herriko udalak gainontzeko udalei euren asmoa jakinarazten die beraiek ere maskaradarik prestatu ez dezaten. Ondoren Zuberoako Udalek maskarada prestatu dutenei euren herrira joateko gonbitea luzatzen diete". Maskaradak urtarrila bukaera edo otsaila hasierako igande batean hasten dira eta 10-12 igandetan luzatzen dira. Aurtengo maskarada Sohüta herriak prestatu du.

Baina, zer esanahi dute maskaradek? "Gizakiak betidanik ospatu ditu ihauteriak. Ihauterien izpiritua berdina da toki guztietan: neguaren bukaera eta udaberriaren hasiera, naturaren berpiztea, ospatzen da. Zuberoako Maskaradak bertako nortasun marka dira".

### IRAUPEN LUZEKO MARTXA GEHIEN EGIN DITUEN MENDIZALEA IZAN DA

# Juanjo Aranburu: mendizale nekaezina

**Euskal Mendizale Federakundeko Iraupen Luzeko Ibilbideen Batzordeak "Shebe Peña" sariarekin saritu zuen Juanjo Aranburu zumarratarra hilaren 15ean izan zen Mendizaleen V. Sariketan. Izan ere, Juanjo 2002an iraupen luzeko ibilbide gehien egin dituen euskal mendizalea izan da. Zumarratarrak iraupen luzeko hamabost mendi martxatan parte hartu du. Guztira, gutxi gora-behera, 700 kilometro egin eta 30.000 metro igo ditu.**

Juanjok txikitatik da mendizalea. Hala, ia egunero abiatzen da Izazpi aldera eta, duela urte pare bat Otamotzen azaldu genizuen moduan, Ameriketako gailurrik altuenetan ere izan da Felipe Uriartek antolatutako espedizio batean. Iraupen luzeko mendi martxetan, berriz, duela 14 urte hasi zen. Ordutik martxa ugaritan parte hartu du, bai Euskal Herrian, bai gure mugetatik kanpo. "Geroz eta mendi martxa gehiago antolatzen dira eta ahal dudan guztietara joaten naiz. Dena den, gehien atsegin ditudanak iraupen luzekoak dira". Iraupen luzeko martxak 40 kilometrotik gorako luzera eta 8 ordutik gorako iraupena dutenak dira. Batzuek 100 kilometrotik gora dituzte.

Iaz Juanjok 15 mendi martxatan parte hartu zuen. "Euskal Mendizale Federakundeak antolatzen duen zirkuitua 21 martxek osatzen dute, baina batzuk egun berean izan direnez, ezin izan dut guztietan parte hartu. Asteren batean larunbatean martxa bat eta igandean beste bat egin dut". Udaberritik aurrera ia astero iraupen luzeko mendi martxa batean parte hartzen duen arren, asteburuetan familiarekin egoteko denbora nahikoa omen du. "Askotan gauez irteten garenez, eguerdirako ibilbidea bukatuta dugu eta arratsaldean familiarekin egon gaitezke".

Juanjoren ustez martxarik gogorrenak Hiru Haundiak eta Durangoko 24 orduak dira. Gehien atsegin duena, berriz, Txirritaren omenezkoa da. "Mendi martxa honek Aralar zeharkatzen du eta hemen inguruan antolatzen den ederrenetakoa da. Dena den, guztiak dira ederrak".

Juanjok esan digunez, ez du aparteko esfortzurik egin otsailaren 15ean emango dioten saria lortzeko. "Urtero ahal dudan martxa guztietan parte hartzen saiatzen naiz, beraz, urtero egiten dudana besterik ez dut egin. Beste batzuek ere, horretara jarriko balira, nik egin dudanan lortuko lukete".

Aurten ere, Juanjo ahalik eta iraupen luzeko martxa gehienetan parte hartzen saiatuko da. "Martxa berriren batean parte hartzea gustatuko litzaidake. Castelló-n oso martxa ederra antolatzen dutela entzun dut eta bertara joaten saiatuko naiz. Iaz Kataluniako hiru martxetan parte hartu nuen. Hemen bezain mendizaleak inon ez direla uste dugu, baina Katalunian sekulako zaletasuna dute".



# ZORIONAK!



**Ainara**, modelo lanen bat bilatzen al zabiltza azken urteotan Bartzelonan? Hori da hori posea! Zorionak!



**Ainhoa**, hori da hori "pikaro" irrifarrea duzuna... Jada bihurrikeriak egiten hasi al zara? Zorionak!



**Ainhoa**, duzun izeba izanda horren lasai egoteko aukerarik ba al duzu? Oraingoan ere adarra jotzeko prest izango da...



**Alaine**, belarri txikiak ala betaurreko handiak dituzulako jarri al diezu soka betaurrekoei? Zorionak!



**Alazne**, ez zaitez triste egon neska, Aste Santuko oporrak berehala helduko dira eta! Zorionak!



**Alberto**, urtero berdin harrapatzen zaitugu! Zure etxean eguna komuna garbitzen emango duzue... Zorionak!



**Ander**, jakin al daiteke non demontre atera zizuten argazkia? Hori da hori aspertu aurpegia duzuna... Zorionak!



**Ander**, hotza egiten duela eta arratsalde guztia erradiadore ondoan igaro al duzu? Zorionak!



**Ander**, ez dirudi argazkia ateratzeko gogo handirik zenuenik... Zorionak eta ondo ibili!



**Ane**, dirudien bezain lotsatia al zara? Gurasoak ez dira iritzi berekoak izango, seguraski. Zorionak!



**Arantza**, argi ibili katekisten merriendetan, bestela batenbati gasolina bota beharrean gasoila botako diozu eta!



**Beni**, dagoeneko lepoak ez al dizu burua eusten? Azkar hasi zara matxurekin... Zorionak!



**Edurne**, hori da hori txintxo aurpegia duzuna. gurasoak gustura asko izango dira zurekin! Zorionak!



**Elene**, nora zoaz soineko horrekin? Karibetik bidali al diguzu argazkia? Zorionak eta ondo ibili!



**Eneko**, ea hurrengoan irrifarre txiki bat eskaintzen diguzun, horretarako ez da ordaindu behar eta! Zorionak!



**Eneko**, ez iezaguzu horrela begiratu beldurtu egiten gaituzu eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze



**Eneritz**, zapia lepoan eta seriotasuna ahoan. Ea irrifarre bat eskaintzen diguzun hurrengoan! Zorionak!



**Estefania**, ilegorria eta nahiko bihurria nahiz eta argazkirako jarri txintxo aurpegia! Zorionak!



Hona hemen bere izenari ohore eginez "**Gene**rosa-generosa" pegatinak jartzera etortzen dena! Zorionak!



**Haritz**, txintxo aurpegia jartzen duzu, baina zu ere alproja galanta izango zara! Zorionak eta ondo ibili!



**Iker**, horren buru astuna al duzu? Lepokoa jarri beharko dizute erori ez dakizun... Zorionak!



**Imanol**, esaiozu argazkilariari hurrengoan flasharekin kontuz ibiltzeko, ia ez zaizkizu begiak ikusten eta! Zorionak!



**Iñaki**, jaio aurretik jada anaiarekin zinenez, behingoz biok banatzea erabaki dugu! Zorionak eta ondo ibili!



**Iñigo**, argi ibili ezkerretara duzunarekin ito egin nahi zaituela dirudi eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Itziar**, zu bezalako jendea behar dugu: argazkilariaren lanari adi dagoena! Zorionak eta ondo ibili!



**Jon**, zu ere ez zara makala izango bihurrikeriak egiteko orduan! Zorionak eta ondo ibili!



**Jon**, argazkilariak ezustean harrapatu al zaitu? Catherine Z Jonesek egin duen moduan, salaketa jarriozu!



**Jon**, neguko hotzak izoztu egin al zaitu? Begiak kliskatzeko ere ez zarela mugitzen dirudi! Zorionak!



**Josebe**, ea argazki berri bat ematen diguzun, hau jada horituta dago eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Julen**, hori da hori txunditu aurpegia duzuna... nor ari zitzaizun argazkia ateratzen? Zorionak eta ondo ibili!



**Julian**, hori da hori txintxo aurpegia duzuna... ez gara zutaz batere fido! Zorionak eta ondo ibili!



**Julio**, ea noiz heltzen den zure hila dagoeneko hotzez akatzen gaude eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Koldo**, argi ibili alboan dituzun horiekin, burutazio onik ez dute eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Kristina**, semealaba bakoitzak bere oparia egiten badizu, gustura asko beteko dituzu urteak! Zorionak!




**Kristina**, oraingoan ere mingainari eragiten harrapatu zaitugu... berritsu samarra zarela dirudi! Zorionak!



**Libe**, mototsa moztu dizugu, orrialde osoa hartzen zuen eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Lourdes**, oraingoan ere argazkilariak berriketan harrapatu zaituzte! Mingaina ardagaia baino lehorragoa izango duzue jada!



**Luis**, zer dela eta zaude horren burumakur? Ez al dakizu oraindik Reala lidergoan dagoela? Zorionak!



**Maialen**, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... Gutaz parre egiten ari al zara? Zorionak!



**Maialen**, ea urtebetetze egunean orrazia oparitzen dizuten, behatzak entxufean sartu dituzula dirudi eta!

# ZORIONAK!



**Maitane**, ahizparengandik banandu zaitugulako al zaude horren haserre? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Marc**, hori da hori itxura modernoa duzuna... aurki Lo Que Faltaba-ra eramango zaituzte txepelkeriak esatera! Zorionak!




**Markel**, ea hurrengoan atzealde argiago bat auke-ratzen duzun, ilerik ez duzula dirudi eta! Zorionak!



**Marta**, zapia buruan eta begirada zeruan... ea argazkilariari arreta handiagoa jartzen diogun, arraioa! Zorionak!



**Mikel**, ez zaitez txintxo aurpegia jartzen saiatu dagoeneko ez gaituzu engainatzen eta! Zorionak!



**Mikel**, etzazu horren bekosko iluna jarri ez zara argazkirako dugun txokoan sartzen eta! Zorionak!



**Mikel**, hori da hori argazkia... udal hauteskundeetarako hautagaia zarela dirudi! Zorionak eta ondo ibili!



**Miren**, gustura asko ikusten zaitugu! Ez da harritzekoa, Aguraindik Zumarragara etorri zara bizitzera eta! Zorionak!



**Nekane**, Pertsiar Golkora itsasontzian joateko erosi al duzu alkondara berria? Zorionak eta ondo ibili!



**Nikolas**, txapela besterik ez duzu falta aitona baten modukoa izateko! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Onhintze**, argazkilariak eztula egiteko zorian harrapatu al zaitu? Kontuz, Bush-en misilen bat ahoan sartuko zaizu eta! Zorionak!



Atzean dituzun olatuak ikusi ondoren, ez dakigu **Salome** zaren ala Rocio Jurado "Como una ola..." abesten! Zorionak!



**Sebas**, zer demontre gertatzen da Windows sistemarekin? Hobe geunden, bai, MS-Dos ordenagailuen garaian! Zorionak!



**Sole**, oraingoan ez gara zurekin sartuko, azkenaldian pegatinak jartzen oso fin zabiltza eta! Zorionak!



**Rosario**, izen horrekin eta buruan daramazun zapiarekin errezatzea gustuko izango duzu! Zorionak!



Zapatadendan txarolezko zapatak saltzea gustuko izango duzu seguraski... Zorionak **Txaro** eta ondo ibili!



**Uxue**, goxoki garratzen bat eman al dizute? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Xabi**, oraingoan anaia beste puntara joan zaizu eta pake ederra ematen ari da! Zorionak!



**Xabi**, ea hurrengoan argazkilariari arreta handiagoa jartzen diogun, bestela alferrik ari da eta! Zorionak!




**Xabier**, dirudienez ileapaintzaile "moderno"-ak ez dituzu gustuko... Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Maialen**, aitak Ardantzak bezala lehendakaritza bat utzi eta beste bat hartu behar al du? Zorionak eta ondo ibili!



**Xila**, urtebetetze egunerako hortza berriak eskatu al dituzu? "Kuñaau!!"-k baino hortza gutxiago dituzu jada! Zorionak!




**Jose Mari**, hori da hori seriotasuna... mendizaletasuna ez da txantxetako kontua zuretzat! Zorionak!



**Itziar**, mahai ederra egin zenuten Antion... ez zarete, gainera, eguzkiak erreko zaituzten beldur! Zorionak!


BILINTX
LIBURUDENDA

**EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.**
-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224
Fax: 422363 20003 DONOSTIA
-Fermín Calbetón, 30
Telf. 422696 20003 DONOSTIA
-República Argentina, 4 Telf. 626817
Fax: 626817 20300 IRUN
-Arostegieta, z/g. Telf. 673533
Fax:673500 20400 TOLOSA
-Ibargarai, 12 Telf. 764050
Fax: 764050 20570 BERGARA



# Nekane Lasa eta Gorka

# Saririk gabeko t

Nekane Lasa eta Gorka Ruiz de Gordoa herritarrek zilarrezko eta brontzezko dominak lortu zituzten Asturiasko Sotrondio herrian izan zen estatuko ziklo-kross txapelketan. Honi esker, bi gazteek otsaileko lehen asteburuan Italiako Monopoli hirian izan zen munduko txapelketara joatekoak ziren. Azkenean Espainiako Txirrindularitza Federazioak etxean utzi zituen. Mundialean parte hartu edo ez, Nekanek eta Gorkak denboraldi honetan egindako lanak herritarron arreta eta txaloak merezi ditu.




**Nola joan da ziklo-kross denboraldia?**

Gorka: Azaroan hasi genuen eta urtarrilean bukatu da. Lasterketa gehienak Euskal Herrian izaten dira, baina Espainiako selekzioarekin beste toki batzuetan ere izan naiz. Espainiako txapelketan hirugarrena egin nuen bi galiziarren atzetik eta Euskadikoan laugarrena izan nintzen. Euskadikoan garailetik gertu nenbilen, baina matxura izan nuen. Euskadiko ranking-ean bigarren gelditu naiz eta Espainiakoan laugarren.

Nekane: Aurten ere mendiko bizikleta eta ziklo-kross denboraldiak egin ditut eta ziklo-krossean hobeto aritu naiz. Izan ere, denboraldi honetan ziklo-krossa askoz ere hobeto prestatu dut: Espainiako txapelketaren ondoren, abuztuan, mendiko bizikleta utzi nuen eta ziklo-krossa prestatzen hasi nintzen. Euskal Herriko lasterketa guztiak irabazi ditut Euskadiko txapelketa izan ezik,eta hori aberia bategatik izan zen. Frantziako bi lasterketetan aritu naiz eta batean irabazi eta bestean bigarren egin nuen. Espainiako txapelketan, berriz, bigarren egin nuen. Sprint-ean galdu nuen. Behintzat, irabazlea eta ni maila berean gaudela badakit.

**Neska asko aritzen al zarete ziklo-krosseko lasterketetan?**

Hemen gutxi, asko jota hamar bat. Espainiako txapelketan, berriz, 23 neska izan ginela uste dut. Jubenil mailako mutilekin batera aritzen gara, ez baitago nesken kategoriarik. Lasterketan parte hartzeagatik dieta bat ematen digute, baina lehenengoa gelditzeagatik ez digute saririk ematen. Dena den, podiumera igotzen uzten digute behintzat. Sailkapenean ere mutilen artean jartzen gaituzte eta ez dugu puntuatzen.

**Zein taldetan aritu zarete denboraldi**

# Ruiz de Gordoa: xapeldunak

**honetan?**

Gorka: Construcciones Metálicas Urretxu taldean nabil. Ziklo-krossean lau lagun aritzen gara: Iñaki Lasa, Igor Montes, Dannel Yurrebaso eta ni. Errepideko lasterketetan, berriz, lagun gehiago aritzen gara.

Nekane: Aurten Debabarrena taldean aritu naiz eta askoz ere gusturago nabil. Erraztasun gehiago eman dizkigute. Izan ere, Orbeak talde profesionala ere badu eta dena beraientzat zen. Debabarrena taldean laguntzak ematen dizkigute, bidaiak ordaintzen dizkigute, bizikletak uzten dizkigute, primak ematen dizkigute... Beti gure gainean daude eta gugatik asko arduratzen dira.

**Nolatan gelditu zineten munduko txapelketatik at?**

Nekane: Espainiako txapelketaren ondoren esan ziguten neska bakarra joango zela. Nik bigarrena gelditua joango nintzela uste nuen, iaz hiru joan baikinen. Dirua falta dela esaten dute, baina ez dakit zertan gastatuko zuten. Lasterketak antolatzen behintzat ez da izan... Nire taldeko jendea asko mugitu zen munduko txapelketara eraman nezaten, prentsak ere presioa egin zuen... baina ez zuten ezer lortu.

Gorka: Espainiako txapelketan hirugarren gelditu ondoren, Amadeo Olmos selekzionatzaileak mundialera joango nintzela esan zidan. Ondoren, gaixo jarri nintzen, ez nuen bi lasterketetan parte hartu eta komunikabideen bidez ordezkoa izatera pasa nintzela jakin nuen. Sendatu ondoren, lasterketa batean, Olmosek bi lasterketa haietara joan ez nintzelako jarri nindutela ordezko esan zidan. Oso gaizki iruditu zitzaigun, munduko txapelketara eraman zuten galiziar bat ere gaixo egon baitzen, lasterketak bukatu ezinik, eta hura mundialera eraman baitzuten.

**Munduko txapelketara joateko ilusio handia izango zenuten...**

Nekane: Munduko txapelketara joateko itxaropena nuen. Gainera, aurtengo denboraldiko helburua Espainiako txapelketan ondo aritzea eta, ondoren, munduko txapelketara joatea zen. Aurten iaz baino hobe ikusi dut neure burua eta pena handia eman dit ez joateak.

Gorka: Ilusio handia egiten zigun. Aitak jada Italiara bidaia antolatua zuen: hegazkin txartelak, hotela... hartuta zituen. Federazioa oso gaizki aritu dela uste dugu, oso fundamentu gutxirekin. Konzentrazioetarako deialdi gutunak, adibidez, konzentrazioak pasa ondoren heldu izan dira.

**Aurki errepideko denboraldia hasiko duzue...**

Gorka: Jubeniletako lehen urtean, iaz, hiru lasterketa irabazi nituen; horietako bat Euskadiko txapelketa. Aurten ez dut uste gauzak asko aldatuko direnik.

Nekane: Iaz hiru lasterketetan parte hartu nuen eta denboraldi honetan, ahal baldin badut, lasterketaren batean parte hartuko dut. Dena den, ez dut errepidean serio aritzeko asmorik.

**Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Gorka: Datorren urtean afizionatu mailara pasako naiz. Afizionatuetan denboraldia oso luzea izango da. Aurten ondo ibiltzen banaiz, talderen batek afizionatuetan aritzeko aukera eskaintzea espero dut. Hori dela eta, aurten denboraldi ona egitea garrantzitsua izango da. Afizionatuetara pasatzea lortzen badut, beharbada ziklo-krossa egiten jarraituko dut baina lasaiago.

Nekane: Ziklo-krossean eta mendiko bizikletan jarraitzeko asmoa dut. Ziklo-krossean emaitza hobeak lortzen ari naizenez, hobeto prestatuko dut.

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSSE ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Pisua salgai Zumarragan
Soraluze, 1. eskuina
☎ 943 72 14 17
☎ 943 72 19 94


BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎943 726274
ZUMARRAGA



## Josean Jarit

Zumarragako udaltzaina den arren, Josean Urretxun jaio zen. Lau urte bete zituen arte Jauregi etxean bizi izan zen eta, ondoren, San Martin auzora joan ziren. "Haurtzaroa bertan igaro nuen eta oso oroimen politak ditut. Kalean asko egoten ginen, Gure Trena hortxe genuen... San Martin, Eitza bezala, beste herri baten modukoa izan da". 10 urte bete ondoren, Josean Zumarragako Bidezarrera joan zen bizitzera eta, ordutik, kale honetan bizi da.

Ikasketak Iparragirre klaseko "Nazionaletan" eta Institutuan egin zituen. 18 urte inguru-rekin Madayan lanean hasi zen eta hau itxi zenean Zumarragako Udaletxean. "Langabezian nengoela euskara ikasteko aprobetxatu nuen eta UNEDen psikologia ikasten ere hasi nintzen". Zumarragako Udaleko kanpo zerbitzuetan eta zerga-bilketan aritu zen udaltzain hasi aurretik. "Ez naiz udaltzaina bokazioz, baina bizimodua dagoen moduan ezin naiz kexatu. Nahiago nuke mundu guztiak nirearen moduko lana izatea!"

**-Zer izan nahi zenuen umetan?**

Txirrindularia. Beti gustatu izan zait txirringa eta ziklo-turista ere izan naiz.

**-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Musika entzutea, kitarra jotzea, irakurtzea eta lagunekin egotea.

**-Bizitzeko toki bat?**

Urretxu eta Zumarragan ondo bizi gara. Atsegin ditut bi herri hauek.

**- Nori jarriko zenioke isuna gustura asko?**

Intransijentzia gorroto dudanez, garai hauetan Aznarri zalantzarik gabe.

**-Zer da zure lanetik gehien atsegin duzuna?**

Lan guztiek dituzte alde onak eta txarrak. Gehien atsegin dudana jendearekin dudan harremana da.

**-Eta gutxien atsegin duzuna?**

Isunak jartzea, baina jarri egin behar dira. Hori argi dago. Bestalde, ezin dugu festetaz gozatu.

**-Zer emango zenuke jendeak herri barruan autoa gutxiago erabil zezan?**

Herri erdian etxeak egitea nahi dugu, baina baita aparkalekuak egitea ere eta ez dago guztiarentzako tokirik. Kotxea gutxiago erabiltzen saiatu beharko ginateke. Guztiok jarri behar dugu gure aldetik.

**-Ba al dago bereziki gorroto duzun gidari moetarik?**

Besteak kontuan hartzen ez dituztenak. Batenbatek gauzak gaizki egiten dituenean, ez duela fede txarrez egiten pentsatzen dut. Baina poteatzera kotxean joatea, adibidez, oso gaizki iruditzen zait.

**-Ilehoriak ala beltzaranak?**

Denak. Garrantzitsuena pertsona da.

**-Egindako azken oparia?**

Belarritako batzuk.

**-Eta jasotakoa?**

Praka batzuk.

**-Data bat?**

Semeen jaiotza eta emaztea ezagutu nueneko eguna (martxoaren 1a).

**-Neska eta mutil izen bana?**

Mutil izena semeena: Eillande eta Aitzol. Neska izan bagenu, berriz, Izarne jarriko geniokeen.

**-Zein egunkari irakurtzen duzu?**

Denetik pixkat: Euskaldunon Egunkaria, DV, Gara...

**-Gustuko telebista saioa?**

Musikarekin erlazionatuta daudenak. Azken bolada honetan Operación Triunfo jarraitzen dut, musika saioa delako soilik. Hitzetik Hortzera ere atsegin dut.

**-Bereziki gorroto duzuna?**

Gran Hermano gorroto dut. Alferkeria hutsa da hor egotea ezer egiteke.

**-Liburu bat?**

Momentu honetan Sarrionaindiaren "Gizon Izoztua" irakurtzen ari naiz. Duela gutxi irakurri nuen Ken Follet-en "Los pilares de la tierra" asko gustatu zitzaidan.

**-Filme bat?**

Amenabarren "Los otros" asko gustatu zitzaidan.

**-Gustuko abestia?**

Silvio Rodriguez-en "Tocando fondo".

**-Soinu bat?**

Kitarrarena eta saxoarena.

**-Usain bat?**

Freskotasunaren usaina.

**-Janari bat?**

Hemengo babarrunak asko gustatzen zaizkit.

**-Ura ala...**

Ardo ona, oso ardozalea ez naizen arren.

# MARTXOKO AJENDA

## ZUHAITZ EGUNA

**Martxoak 22:** Zuhaitz Eguna. Goizeko 11etan Ipar Haizea eta Ospitala inguruko berdegunean landaketak egingo dira.

## IKASTAROA

**Martxoak 12:** Harizpi elkarteak Kultur Etxean antolatutako lore lehorren ikastaroari hasiera ematea. Izen ematea Kultur Etxean (30 euro).

## MUSIKA

**Martxoak 23:** Eguerdiko ordubatetan "Coro juvenil y orquesta de camara del Conservatorio Municipal de Manresa"-ren kontzertua Zelai Ariztin.

## HITZALDIA

**Martxoak 11:** Jaione Valdesen komunikazioari eta trebetasun sozialei buruzko hitzaldia, 4etan, Kultur Etxean.

## ZINEKLUBA

**Martxoak 13:** ButaK 21 zineklubak eskainitako "Millennium mambo" filmea 9:30etan Zelai Ariztin.

**Martxoak 20:** ButaK 21 zineklubak eskainitako "Historias de Philadelphia" filmea 9:30etan Zelai Ariztin.

**Martxoak 27:** ButaK 21 zineklubak eskainitako "El voto es secreto" filmea 9:30etan Zelai Ariztin.

## MENDI IRTEERAK

**Martxoak 9:** Ostadarren mendi irteera. Biana aldeko mendietan. Kodes-ko Santutegia - Joar (1.414 m) - La Plana (1.333 m) - La Costalera (1.222 m) - Kanpezu.


**Martxoak 15-16:** Ostadarren neguko irteera Piriniotako Linza eta Zurizara.

**Martxoak 30:** Goierriren mendi irteera Benafarro eta Nafarrora. Lasse (Donibane Garazi)-Munhoa-(1134 m)-Adartza (1253 m)-Orreaga.

## ANTZERKIA

**Martxoak 4:** Oihulari Klown taldaren "Pekin 36002" antzelana (emakumearen astearen barruan). 5:30etan Pagoeta antzokian.

**Martxoak 7:** Agerre taldearen "Mujeres al rojo vivo" antzezlana, 10:30etan, Zelai Ariztin.



## Egin zaitez Otamotzeko harpidedun!

Azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkarirako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2003. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizkigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378.**

### BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:
Helbidea:
Herria:
Urtean kuota hau ordainduko nuke:
-6 euro -9 euro -12 euro
Kontu kte. zkia:
Kutxa edo bankua:
Herria:

iKER

# SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR



Udala enparantza, z/g.
☎ 943 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
20700 URRETXU